

299/2025 EBAZPENA, MAIATZAREN 8KOA, BIZKAIKO OSASUN MENTALEKO SAREKO ZUZENDARI GERENTEARENA, ZEINAREN BIDEZ ONESTEN DIREN ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ETA BALORAZIO BATZORDEAREN OSAERA, BIZKAIKO OSASUN MENTALEKO SAREAN BILBOKO ESKUALDEKO ZERBITZU SANITARIOKO BURU BAT HAUTATZEKO EGINDAKO DEIALDIAN.

AURREKARIAK

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko (BOMS) zuzendari gerentearen urtarrilaren 14ko 15/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen, Osasun Mentaleko Sarean Bilboko Eskualdeko Zerbitzu Sanitarioko buru lanpostua betetzeko, lehiaketa- bidez, (EHAA, 25. zk., 2025eko otsailaren 6koa, eta BOE, 37. zk., 2025eko otsailaren 12koa)

Deialdian, 15 egun balioduneko epea ezarri zen eskabideak aurkezteko, ebazpena zegokien aldizkari ofizialetan azken aldiz argitaratuko zen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, eta epe hori 2025eko martxoaren 5ean amaitu zen.

BOMSeko zuzendari gerentearen martxoaren 26ko 208/2025 Ebazpenaren bidez, onetsi zen prozesuan onartu eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurka erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, BOMSeko zuzendari gerenteak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko ebazpena emango du, adierazita zein izan diren baztertutako arrazoiak. Ondoren, agindua emango du, ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren web-orrian argitaratzeko.

Aurrekoarekin batera, argitaratu beharrekoa da Balorazio Batzordearen izendapena.

Horrenbestez, pertsonaleko alorrean indarrean dagoen legediak ematen dizkidan eskumenez baliaturik, eta Osakidetza Estatu Sozialak arautzen dituen 15.1 e) artikuluari jarraikiz (255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa eta EHAA, 219. zk., azaroaren 14koa), lehiaketaren arauak betetzeko,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onestea BOMSen Bilboko Eskualdeko Zerbitzu Sanitarioko buru lanpostua betetzeko deitutako lehiaketan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda (I. eranskina).

Bigarrena.– Balorazio Batzordearen osaera onestea. (II. eranskina)

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren web-orrian argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakiokete Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbon, 2025eko maiatzaren 8an



Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendaria gerentea
Aratxu Lozano Otero

I. ERANSKINA**BIZKAIKO OSASUN MENTALEKO SAREKO BILBOKO ESKUALDEKO ZERBITZU SANITARIOKO
BURU LANPOSTUA
ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA**

Onartuen behin betiko zerrenda:

- Patxil Gil López jn.

Baztertuak:

- Inor ez

Baztertzeko arrazoiak:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu du.
- 6- Beste batzuk.

II. ERANSKINA

BIZKAIKO OSASUN MENTALEKO SAREKO BILBOKO ESKUALDEKO ZERBITZU SANITARIOKO BURU LANPOSTUA BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburu:

Titularra: José Ignacio Landaluce Lauzurica jn.

Ordezkoa: Julián Salvador Blanco jn.

Lehen batzordekide:

Titularra: Adelina Pérez Alonso and.

Ordezkoa: Roberto Ciordia Domínguez jn.

Bigarren batzordekide (IVAPek proposatua):

Titularra: Rodrigo Joaquín Oraá Gil jn.

Ordezkoa: Begoña Mendivil Eguiluz and.

Hirugarren batzordekide:

Titularra: Izaskun Elortegi Kaiero and.

Ordezkoa: Amaia Echevarria Alfonso and.

Laugarren batzordekide:

Titularra: Marta Torreblanca Pacheco and.

Ordezkoa: Eva Ibañez Gorostiaga and.

Idazkari:

Titularra: María Estrella Garrido Manzano and.

Ordezkoa: María Urraza Bernaola and.